



NIRE
ILUNTASUNEAN
NI

AINTZANE SÁNCHEZ ABANADES

GRADU AMAIERAKO LANA
IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIO GRADUA
2014/2015 ikasturtea

NIRE ILUNTASUNEAN NI


Aintzane Sánchezen BIDEOSORMEN LANA

Zuzendaria: Amaia Nerekan Umaran



Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO
ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS SOCIALES
Y DE LA COMUNICACIÓN



Ikus-entzunezko Komunikazioa
eta Publizitatea
Comunicación Audiovisual
y Publicidad

AURKIBIDEA

LANAREN ESTEKA	4
FITXA TEKNIKOA	5
PROIEKTUAREN AZALPENA	6
LOGLINE ETA SINOPSIA	9
ERREFERENTZIAK	11
GIDOIA	19
LOKALIZAZIOAK	22
EKOIZPEN PLANGINTZA	24
BIBLIOGRAFIA	26

LANAREN ESTEKA

ESTEKA:

<https://vimeo.com/139742453>

PASAHTZA:

NIREILUNTASUNEANNI2015

FITXA TEKNIKOA

Izenburua	NIRE ILUNTASUNEAN NI
Egilea	Aintzane Sánchez Abanades
Urtea	2014/2015
Iraupena	5: 42 Minutu
Generoa	Bideo-sormen Lana / Bideo-instalazioa
Jatorrizko formatua	HD 1920x1080
Aspektu erlazioa	16:9
Audioa	Estereo
Hizkuntza	Euskara

The image features three women standing in front of a stone wall. They are all wearing light pink, short-sleeved shirts and black pants. The woman on the left is standing with her hands at her sides. The woman in the center is sitting on the ground with her hands on her knees. The woman on the right is standing with her hands at her sides. The text 'PROIEKTUAREN AZALPENA' is overlaid in the center of the image in a white, pixelated font.

PROIEKTUAREN
AZALPENA

PROIEKTUAREN AZALPENA

NIRE ILUNTASUNEAN NI proiektua narrazio konbentzionalen linealtasunarekin apurtzea duen bideo-instalazio bat da.

Idea honek bideo-sormen irakasgaien du abiapuntua. Bertan, bideo artistek erabili izan dituzten teknika desberdinak ikasi egin genituen, eta hauetatik, linealtasunaren apurketa deigarriena iruditu zitzaidan, munduaren normaltasuna apurtzeko duen erraztasunagatik.

Ikasitako ideia berri hau proiektuaren erdigunea bihurtu zen, eta txikitari hain gustuko nituen “zure abentura sortu” liburuen estiloa jorratuz, ikusleari istorio jarraitzeko bide ezberdinak eskaintzen dizkion laburmetraia egitea erabaki nuen.

Bi ideia hauek uztartu ondoren, eta *Chantal Akerman* edo *Julio Medem* artisten pantaila anitzeko bideo sormen lanetan oinarrituz, bideo-instalazio bat prestatzeari ekin nion.

Proiektu bakar batean elkartzen diren hiru lan desberdinez egituratutako laburmetraia da. Hala ere, lineala izan beharrean (hasiera, korapiloa eta amaiera batekin), hiru korapilo ezberdin dituen bideo sormena da.

Ikusleek istorio bakoitza bideo instalazioa osatzen duten hiru pantailetakoa batean jarraitu dezakete, hasiera eta bukaera berdina dituzten hiru istorioak ikusteko aukera izanik.

Gainera, hauetan ikusiko diren lanak genero desberdinetakoak dira: ezkerrekoan fikziozko laburmetraia egin da; eskumakoan, garai desberdinetako *found footage* erabili da; eta azkenik, erdiko pantaila edizioan oinarritutako bideosormen lan baten egitura dauka.

Hala ere, bideo instalazio hauek modu isolatuan, bere kabuz, ez lukete izateko arrazoirik izango, hiru pantailak elkarrekin ikusten ez badira.

Horrela izanik, laburmetraiak emakume baten barneko mundua aurkezten du, eta ikusleari erakusten dio emakume bakar baten barnean “emakume” desberdin asko existitu daitezkeela (hiru emakume kasu honetan), bakoitzak bere sentipen, beldur eta bizipenekin.

Beraz, ikusleak, hiru emakume horien artean, baten istorioa ikusteko aukera izango du, bideo instalazioaren pantaila batetik bestera joz.

Ikusleek eserleku batean jesarrita daudelarik, informazioa baino ez balute jasoko, emakumearen

PROIEKTUAREN AZALPENA

malenkoniak eta ezinegonak ez lieke inolako enpatiarik sorraraziko. Baina pertsona guztien barnean emozio sumendi bat dago, batzuetan eztanda egiteko zorian dagoena. Eta hori da hain zuzen ere istorio honen muina.

Kasu konkretu honetan, aitaren ustekabeko heriotzak eta berak planeatutako senarraren erailketa bortitzak, emakume honen mundua hankaz gora jarri dute. Beste edozein gertakizun izan zitekeen, baina benetan gure barnean gordetzen ditugun oroitzapenak (ahaztezinak direnak eta behin eta berriz gurera datozenak gure nortasuna definituz) itzalez inguraturik daudenak dira.

Ezinezkoa da emozio guzti hauek gure barnean betirako gordeta edukitzea, noizbait eztanda egiteko beharra izango dute eta. Baina hori gertatu baino lehen, ikusleek emakumeari bere barne mundura lagunduko diote eta, bertan daudelarik, bere bizitzaren sail bat ezagutzeko aukera izango dute.

"No te pido que me lo cuentes todo, tienes derecho a guardar tus secretos, con una única e irrenunciable excepción, aquellos de los que dependa tu vida, tu futuro, tu felicidad, ésos quiero saberlos, tengo derecho, y tú no me lo puedes negar"

José Saramago

(El hombre duplicado elaberitik hartutako aipua)



LOGLINE
SINOPSISIA

LOGLINE / SINOPSISIA

LOGLINE

"A veces de noche, enciendo la luz para no ver mi propia oscuridad".

Antonio Porchia (1886-1968, jatorri italiarra duen Argentinako idazlea)

SINOPSISIA

Iluntasunean eta bakardadean baino ez gara ausartzen gure sekretu latzenak kontatzera. Une bakarrean sentimendu guztiak jasan ditzakegu baina dena burura datorkigunean, pentsatzea areriorik bortitzena bilakatzen da. Bi heriotza krudelen oroitzenetatik aldentzea ez da erraza, horregatik, itzal horietatik ihes egin ahal izateko, biharamuna existituko ez balitz bezala aurrera jarraitzea nahitaezkoa da.



ERREFERENTZIAK

ERREFERENTZIAK

NIRE ILUNTASUNEAN NI proiektua definitu behar izango balitz, agian, hobeto azalduko lukeen hitzak *collage* izango litzateke.

Honen zergatia oso erraza da: Lan hau aurrera atera ahal izateko hamaika erreferente eduki dira kontuan, eta hauek, modu batean edo bestean, proiektuan zehar agertuz doaz, era esplizituan kasu batzuetan, eta metaforikoan besteetan,

"ZURE ISTORIOA SORTU" LIBURUAK


Dudarik gabe, erreferenterik garrantzitsuena eta lanaren abiapuntua. Hauetan ikusleak bere istorioa jarrai dezake orri bat edo bestea aukeratuz, liburuaren irakurketa lineala apurtuz nolabait. Ideia hori ikus-entzunezko lan honetan aplikatu egin da. Modu honetan, ikusleek, liburuaren orrialdeak izango balira bezala, pantaila bat edo bestea ikustea erabakiko dute bere istorioa sortzen joateko.



ERREFERENTZIAK

JULIO MEDEM – *CONCHA* (2008)

Idea liburu hauetatik jaio arren, proiektua ez litzateke berdina izango Julio Medemen *Concha* bideo-instalazioa ezagutu ez banu. Artelan hau 2008ko Expo Zaragozan aurkeztu zen bi pantailetan zatikaturik. Hauen artean harreman estua zegoen, batean gertatzen zena bestean isla baitzeukan, bien artean hitz egingo balute bezala. Eta hau izan da, hain zuzen ere, nire proiektuan egin dudana, elkarren artean erlazionatuta dauden pantaila anitzeko bideo-instalazioa.




KYLIE MINOGUE – *COME INTO MY WORLD* (2001)

Lan honen egitura eratzeko, hamaika iturri kontuan hartu izan dira inspirazio gisa, bideosormen lan hau mugak apurtzeko jaio baita. Aipatutako iturrietatik, bideoklipak izan dira garrantzitsuenetarikoak, batez ere Kylie Minoguen *Come Into My World* bideo musikala, Michel Gondry artistak zuzendutako lana. Bideoklip honetan, Kilye Minogue abeslaria biderkatu egiten da, pantailan aldi berean bost aldiz agertuz. Lan honetan du oinarria "ni" desberdinak erakustearen ideia.



ERREFERENTZIAK

TAYLOR SWIFT – *STYLE* (2014)




Estatu Batuetako abeslari honen bideklipa erreferente moduan hartu egin da bere estetikagatik, hain zuzen ere, bere burua silueta gisa hartuz horren barnean egiten den superposizio teknikengatik. Nire proiektuan, neskaren aurpegia mihi se gisa hartzen da eta horren barnean beste irudi batzuk margozten dira.

OPALE – *SPARKLES AND WINE* (2013)



Opalaren *Sparkles And Wine* bideklipa da duda barik beste erreferente garrantzitsu bat. Bertan, bideosormen lan honetan bezala, argi-jokoak eta edizio efektuak nagusi dira.



ERREFERENTZIAK

SIA - *BIG GIRLS CRY* (2014)

Bideoklipen artean, Siaren *Big Girls Cry* azken erreferentia litzateke. Hau garrantzitsua izan da antzezlearen interpretazioari dagokionean, handizkatutako espresibitatea baita nagusi bere antzezteko moduan, NIRE ILUNTASUNEAN NI lanean bezala.



Eta bideo musikalak alde batera utziz, filmak ere oso erreferente garrantzitsuak izan dira lan honen garapenerako. Guztiak aipatzea ezinezkoa da, baina proiektuan eragin gehien izan dutenen artean nabarmenenak hurrengoak dira:

LUIS BUÑUEL - *TRISTANA* (1970)

Pelikula hau ametsen bitartez egituratuta dago, hau da, film guztia amets bat da, bere baitan amets gehiago hartzen dituen ametsa, alegia. Bideosormen lan hau ere, film honen antzera, oroitzapenen bitartez eraikita dago. Gainera, pelikula honek duen surrealismo kutsu hori ere kontuan izan da sentipenen barne mundua islatzeko.

ERREFERENTZIAK

DAVID LYNCH – *INLAND EMPIRE* (2006)

Nahiz eta zinemagile honen estiloa ulertu ez eta askotan bere filmak gorrotatu, hainbat puntuetan bere lan egiteko era barneratu eta proiektu honetan erabili egin dut. Hau dela eta, film honetan erabilitako estetika erreferente gisa hartu da grabaketa egiterako orduan, ez bakarrik Lynchek erabiltzen dituen kolore biziengatik, zeintzuk sentipenei indarra emateko erabili egin diren, baizik eta *Inland Empire* bideokamera batekin filmatua izan zelako. Proiektu honek, bideo-sormenaren hastapenetara joz, tresna elektronikoa honekin ere filmatu egin da, gailu honek daukan itxura bereizgarria proiektuaren parte izan zedin.



ERREFERENTZIAK

HITCHCOCK – *PSICHOSIS* (1960)

Kasu honetan, film honen erreferentzia senarraren erailketaren fikziozko laburmetraian nabaritu daiteke. Aiztoa nola erakusten den, gorputzaren atalak, eskuen garrantzia, inoiz benetako sastadak nola gertatzen diren ez erakustea... Guzti hau *Hitchcocken* filmetik hartuta dago.



ORSON WELLES

*Orson Welles*ek hamaika gauza egin zituen ikus-entzunezko munduan; horietatik, bere antzerki lanak izan dira erreferente proiektu honentzako. Zergatia *Wellesen* lan egiteko eran oinarrituta dago. Bere antzerki-gidoiak egiteko beste idazle eta autore famatuaren obrak erabiltzen zituen. *Collage* baten antzera lan askotatik zati ezberdinak aukeratuz obra berri eta desberdinak prestatzen zituen.



Bakarriketa egiterako orduan zinemagile honen teknika erabili da. Modu honetan, autore famatuaren obrak erabili egin dira beste lan desberdin bat sortzeko. Azken finean, benetako sortzaileak ez dira gauza berriak asmatzen dutenak, baizik eta existitzen diren gauzak guztiz moldatzeko kapazak direnak.


ERREFERENTZIAK

CHANTAL AKERMAN - *D'EST* (1993)

Dudarik gabe, erreferente hauek lanaren ardatza izan dira. Laburmetraian pentsatzea ezinezkoa izango litzateke aipatutako lan hauek gabe. Baina nahiz eta proiektua aurrera eramatea eta sortzea garrantzitsua izan, oso garrantzitsua da ere ikusleei nola ikusarazi egingo diegun pentsatzea. Zentzu honetan, Chantal Akermanek *D'Est* proiektuarekin egindakoa nolabait jarraitu egin da.

D'est dokumentala film bat izateko filmatua izan zen, baina argitaratu ondoren film horrekin bideo instalazio bat sortu zuten museoetan erakusteko. Bideo-instalazio honetan filma 24 pantailetan banatuta zegoen, eta ikusleak batetik bestera ibili zitezkeen filmaren zein zati ikusi nahi zuten erabakiz.

Akermanen adibidea jarraituz, bideo instalazioa izateko proiektua aurrera eraman da. Honetan, baita ere, ikusleek laburmetraiaren zein zati ikusi nahi duten erabaki dezakete



Chantal Akerman-en *D'est* filmari buruzko erakusketa





GIDOTA

GIDOIA

Alde batetik, aitaren heriotza eta haurtzaroan berarekin emandako unerik politenak eta garrantzitsuenak ikus daitezke; bestaldetik, berriz, senarraren erailketa bortitza. Erdian, ahaztezinak eta betirako nortasuna aldarazi dezaketen oroitzapenen artean, egunero bizi beharreko sentimendu, emozio, fobia, beldur eta ezinegon guztiak daude.

Sentimenduek hor jarraitzen dute, erdian, etenik gabe joan-etorritik, une horretara zer eraman gaituen azaltzen. Ideia honekin lotuta dago bideoan entzuten den bakarrizketa.

Bakarrizketa hau sortzeko Orson Wellesek antzerkigintzan erabilitako metodologia aplikatu egin da, bideo sormenean hain ohikoa den "apropiazinismo" teknika jarraituz.

Horrela izanik, bakarrizketari forma eman ahal izateko, beste bertsolari, idazle, eta abeslarien lanen zatiak erabili egin dira, hauekin collage antzeko saiakera bat eginez.

Erabilitako artistak eta euren lanak hurrengoak dira:

- *La Belleza Y La Muerte* - **Victor Hugo**
- *Zapalduen Olerkia / Zigortua* - **Ken Zazpi**
- *De Todos Cuantos Anhelan Tu Presencia* - **Edgar Allan Poe**
- *Acaso* - **Antonio Machado**
- *Apología* - **Oscar Wilde**
- *Hitzen Heriotza* - **Bernardo Atxaga**
- *Xalbadorren Heriotza* - **Xabier Lete**
- *Bertso txapelketak (2001/03)* - **Maialen Lujambio**
- *Elektrizitatea* - **Zea Mays**
- *Chandelier* - **Sia**

GIDOIA

Iluntasunean eta bakardadean baino ez gara ausartzen gure sekretu latzenak kontatzera. Argiak eta itzalak baitira hauek gordetzen dituztenak.

Bidegurutze honen erdian nagoelarik, nora ezean, betirako zigortuta nagoela sinesten dut, zerbait falta zaidanaren sentimena sufrituz.

Gogaitasun honetatik askatu beharra daukat, baina ez dakit nola, orbaina jarraitzen baitu nire bihotz barnean. Aldatu nahiko nuke, horregatik nire buruak behin ta berriz dio: segi aurrera, ihesa ez da bidea, baina iluntasun honetan agertzen naiz berriro.

Txikitatik ikasi baitut ezer gertatu izan ez balitz bezala jokatu behar dela beti. Hala ere dena datorkit burura, pentsatzea nire areriorik bortitzena baita. Esnatu baino ez dut egin nahi, baina nire begi irekiek hemendik ateratzeko aukerarik ez dagoela esaten didate.

Ez dakit nola ailegatu naizen hona, baina hemen nago, bakardadean, itzal artean. Iluntasunak hartu egin nau nire negar malkoek lurra ernaltzen duten bitartean. Horregatik, zoramen hau nire paretik aldentzen saiatzeko, gau ilun honen azken arnasketaren azkenengo segundoetan, nik ere oihukatu egingo dut.

Une bakarrean sentimendu guztiak jasan ditzaket. Aldentzea da bide bakarra, baina hegorik gabe hegan noa. Heriotzak edonoiz hil gaitzake, baina berarekin bizi behar dugu. Hori dela eta, biharamuna existituko ez balitz bezala aurrera jarraituko dut. Txoria bezala iluntasunean hegan egingo dut, gau osoan zehar, nire malkoak nola lehortzen diren sentitu arte.

Eta ganbara ikustezin honetan itzalekin jolasten dut. Ni neu izaten saiatzen naiz: iragana ezabatzen, geroa margotzen, nire ezintasun guztiak behin eta berriz gogoratzen, azkenean ni neu izaten jarraituko baitut, nire istorioa ozenki oihukatuz.

A woman with long, curly dark hair is kneeling in a dark, textured environment, possibly a cave or a tunnel. She is wearing a light pink, long-sleeved shirt and dark pants. She is looking down at a smartphone in her hands. The background is dark and has a rough, stone-like texture. The floor is also dark and appears to be made of stone or concrete.

LOKALIZAZIOAK

LOKALIZAZIOAK

GANBARA

"Iluntasunean eta bakardadean baino ez gara ausartzen gure sekretu latzenak kontatzera"

Lokalizatorik garrantzitsuena ganbara huts bat izatearen arrazoia esaldi honek ezin baino hobeto azaltzen du. Ganbara hau barneko mundu horren metafora bat da. Leku iluna, bakartia, non emozio guztien gorabeherak pairatzea ezinbestekoa den.

Hutsik sentitzen den emakumearen barnealdea, espazio huts, triste eta amaigabe batekin baino ezin daiteke alderatu. Zentzu horretan ganbara honek behar guztiak betetzen ditu, honelako leku batean egoteak beldur guztiak agertarazten dituelako eta eusteko dagoen bakarra aulki herdoildu bat baino ez delako.





EKOIZPEN
PLANGITZA



BIBLIOGRAFIJA

BIBLIOGRAFIA

LIBURUAK:

- ALVAREZ BASSO, C. eta BONET, E. (1995). *Señales de Vídeo : aspectos de la videocreación española de los últimos años*. Itinerario de la muestra. Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofia. Madrid.
- GUIASOLA, F. (1996). *Muestra de artes audiovisuales, videocreación e infografía*. Ministerio de Educación y Ciencia. Madrid.
- NEKANE ARAMBURU, N. eta HILARIO J. RODRÍGUEZ, H. (2010). *Todo cuanto amé formaba parte de ti : videocreación española en torno al amor y el desamor*. Instituto Cervantes. Madrid.
- CODESAL, J. (1995). *Tras la piel*. Gobierno de Aragón. Zaragoza.
- CATALÀ, JOSEP M. (2014). *El cine de pensamiento: formas de la imaginación tecno-estética*. Universitat Autònoma de Barcelona. Barcelona
- VIOLA, B. (2004). *Bill Viola : las pasiones*. La Caixa. Barcelona
- MITRY, J. (1974). *Historia del cine experimental*. Editorial Fernando Torres. Valencia
- MITRY, J. (2002). *Estética y psicología del cine*. Editorial Siglo XXI. Madrid
- AA.VV. (1993). *Bill Viola : más allá de la mirada (imágenes no vistas)*. Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofia. Madrid
- WEINRICHTER, A. (2009). *Metraje encontrado: La apropiación en el cine documental y experimental*. Gobierno de Navarra, Departamento de Cultura y Turismo, Institución Príncipe de Viana. Navarra

BIBLIOGRAFIA

ELKARRIZKETAK:

KEPA MURUA (2011). *Videocreacion*. Vitoria

ARTIKULUAK:

LAZKANO ARRILLAGA, I. (2014). *El valor expresivo del color en el cine de Kieslowski e Idziak*. Universidad del Pais Vasco

BIDEOAK:

BROWN, R. eta FONG, J. (2003). *The work of director Michel Gondry : a collection of music videos, short films, documentaries and stories*. Palm Pictures, Erresuma Batua

YOUTUBE.

Plataforma honetara igotako bideoen ikuspena zafi oso garrantzitsua izan da bai proiektu honen ikerketan, zein bideoaren edizioan.

BIBLIOGRAFIA

OLERKIAK/ABESTIAK:

- *La Belleza Y La Muerte* - Victor Hugo
- *Zapalduen Olerkia* - Ken Zazpi
- *De Todos Cuantos Anhelan Tu Presencia* - Edgar Allan Poe
- *Acaso* - Antonio Machado
- *Apología* - Oscar Wilde
- *Hitzen Heriotza* - Bernardo Atxaga
- *Xalbadorren Heriotza* - Xabier Lete
- *Donostiako bertso txapelketa (2001/2003)*- Maialen Lujambio
- *Elektrizitatea* - Zea Mays
- *Zigortuta* - Ken Zazpi
- *Chandelier* - Sia

FILMOGRAFIA:

- *Tristana* - Luis Buñuel (1970)
- *Inland Empire* - David Lynch (2006)
- *Psichosis* – Alfred Hitchcock (1960)
- *Caótica Ana* – Julio Medem (2007)
- *Fraude* – Orson Welles (1973)
- *D'est* - Chantal Akermann (1993)

BIDEOKLIPAK/ERAKUSKETAK:

- *Concha* - Julio Medem (2008)
- *Come Into My World* - Kylie Minogue (2001)
- *Style* - Taylor Swift (2014)
- *Sparkles And Wine* – Opale (2013)
- *Big Girls Cry*- Sia (2014)



